



Txartel turistikoa

Green

Card

Tarjeta turística
Green Tourist Card

Zer da?

GREEN CARD turismo-txartelak hainbat deskontu edo abantaila lortzeko aukera emango die erabiltzaileei baliabide turistikoak bisitatzean, bisita gidatuak edo bestelako zerbitzu turistikoak kontratatzean, edo saltoki, jatetxe eta ostatuetan.

Doakoa izango da eta 7 eguneko balioa izango du.

Titular bakoitzeko deskarga-kopurua mugatua izango da, eta ezin izango da txartel berri bat eskatu aurreko txartelaren indarraldia amaitu eta 3 hilabete igaro arte.

Aplikazio batetik edo web bidez deskargatu ahal izango da, edo lurraldeko turismo-bulegoetan eskatu.

Zer enpresa mota batu daitezke egitasmo honetara?

Baliabide turistikoek, monumentuek eta museoek gain, honako hauek elkartu ahal izango dira:

- Turismo-gidarien enpresak
- Turismo aktiboko enpresak
- Turismo-ostatuak
- Jatetxe-arloko establezimenduak
- Turismo-bitartekaritza eta bidaia-agentziak
- Tokiko merkataritza
- Espainiako Ekoturismo Klubeko kide diren enpresak
- Zerbitzu osagarrietako enpresak

Enpresa horiek “Txartel Turistikoa Green Card Tarjeta Turística” Programara **Atxikitze Akordioan** adierazitako zenbait baldintza bete beharko dituzte, batez ere aplikatzekoak diren araudiak betetzeari eta zerbitzuaren gutxieneko kalitate-baldintzei buruzkoak.

Kide egitea doakoa da.

Nola egin naiteke kide?

Programan parte hartzeko, kide egiteko akordioa bete eta sinatu behar da. Akordio horretan, bere funtzionamendua arautzen da, eta eskainitako deskontua edo abantaila zehazten da.

Deskontu edo abantaila hori ohiko prezioarekiko gutxienez % 5koa izango da, eta administrazio sustatzaileek ez dute inola ere konpentsatuko.

Zer onura lortzen ditut?

Atxikitako enpresek ikusgarritasun eta ospe handia izango dute, besteak beste, turismo-txartela zabaltzeko egindako sustapen-ekintzen bitartez:

- “Txartel Turistikoa Green Card Tarjeta Turística”-ren **webgunea eta aplikazio propioa**. Bertan, enpresaren deskribapen laburra, zerbitzuak eta eskainitako deskontuak agertuko dira.
- **Komunikazio-kanpainak** hainbat hedabidetan (ikus-entzunezko pilulak, mupi digitalak, erakundeen sare sozialak, aurkezpen ofizialak, Kongresu eta Turismo komunikabideen plana)
- Atxikitako erakunde gisa agertzeko **bereizgarria**.

Zer konpromiso hartzen dut?

Kide egiten diren enpresek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Atxikimendu-akordioan adierazitako deskontuak edo abantailak aplikatzea.
- Zure establezimenduan erabiltzen diren turismo-txartelak egiaztatzeko eta eskaneatzeko emandako aplikazioa erabiltzea txartel horien erabilerari buruzko informazio orokorra biltzeko.